



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2016ko urriaren 27ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Etxeko hondakinen bilketa kontratua:** KEA Ori txosteneko gakoak laburbildu dira, eta esleipendunak aurkezturiko alegazioen berri eman da. Aurreikusi daitezkeen egoerak, horien aldaerak eta eman beharreko urratsak aztertu dira. Egungo bilketa-zerbitzuekin eta uzten duten esleipendunekin komunikazioarekin jarraitzeko beharra berretsi da.
- **Erabilitako etxeko landare-olioa biltzeko lehiaketa:** Kontratua epe laburrean berrituko da, beste lehiaketa baten bidez.
- **Frakzio organikoaren gaikako bilketarako III komunikazio kanpaina:** Kronograma eta euskarriak aurkeztu dira. Azaroaren 3an abiatuko da.
- **Energiaren Eskualdeko Behatokia:** Prestakuntza-saioa *azaroaren 17an* egingo da (bilera egin ondoren, azaroaren 22ra (asteartea) atzeratu behar da). Helburua: aplikazioaren funtzionaltasunen arabera erabiltzaileak gaitzea, bi maila hauek ezberdinduta: lehenengo zatian (gutxi gorabehera, 2 ordu), oinarrizko nabigazio orokorra, fakturen baliozkotzea eta abar emango dira, eta, bigarren zatian (2 ordu), aldiz, tresnaren gaineko kudeaketa aurreratuagoa irakatsiko da. Udalek zenbait dokumentu jasoko dituzte hurrengo egunetan, baliozkotu eta baimendu daitezten.
- **Hondakinen garbiketa:** Udalerrien beharren arabera, ekintza berriak Eskualdeko Bulegora jakinarazi beharko zaizkio.
- **2015-2016 ikasturteko Eskolako Agenda 21eko txostenak:** entregatu dira, udalerrri bakoitzeko ikastetxeek egindako lanaren laburpena jasoz.
- **2016ko 2. kuota:** 2016 Kudeaketa Planaren kuotaren bigarren ordainketari buruzko Txostena onartu da: 1) Azken 6 hilabeteetako hondakin organikoaren bilketa (lehenengo ordainketan sartu gabekoak); 2) 7 hilabeteko tamaina handiko hondakinen bilketa eta tratamendua.
- **2017 Kudeaketa Plana:** Aurreneko hurbilpena egin da. Udal guztiekin egiaztatze-erronda egingo da, parte-hartzea argitzeko eta, hala badagokio, zerbitzu berrien proposamenak jasotzeko, kostuen bilketako kalkuluak zehazteko asmoz.
- **Basaurirekiko Elkarlan Hitzarmena:** Egoeraren berri eta aurreikuspenak azaldu dira.
- **Informazioak:** Zerbitzu energetiko enpresare eskaintza; Mugikortasun elektrikoaren inguruko eskaintza; FEMP-en eskulibururako fitxa EEPB dela eta; Udalsarea 21 Batzorde teknikoa.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Azaroaren 24an, osteguna, 9:00etatik 11:00etara.